

---

# Euskal diaspora: kidesan partekatuaren adibide?

Camus Etchecopar, Argitxu

Eusko Ikaskuntza  
argitxuniz@hotmail.com

---

# N

---

Nahiz eta kontestu ezberdinetan sortu eta garatu diren, euskal diaspora osatzen duten komunitate ezberdinek, Historian zehar, euskal nortasun inklusibo baten eraikitze joera erakutsi dute. Fenomeno hori deskribatu eta sentimentu berezi horren eraikuntzan lagundu duten faktoreak aipatu nahi ditu lan honek. Hori eginez, hein batean, euskal diaspora kidesan partekatuaren adibidetzat har daitekeela agertzen zaigu.

**Giltza-hitzak:** Diaspora. Nortasuna. Anitza. Partekatua. Transnazonala.

## 1. Sarrera

“Diaspora” kontzeptua oso modan dago gaur egun zientzia sozialetan. Errealitate ezberdinak aipatzeko erabiltzen da eta, ondorioz, honen ongi definitzea baitezpadakoa da. Hitzaren jatorri etimologikoa “diaspeirein” hitz greko zaharretik heldu da; Grekoen dispertsioa edo barreiatzea aipatzeko erabiltzen zen (hots migrazio edo kolonizazio zentzuan). Haatik, luzaz, historian zehar haien lurretik kanpo joaitera behartuak izan diren komunitateen aipatzeari hertsatu zaio diaspora kontzeptua, izan Judu, Armeniar edo Afrikarren kasua izanik adibidez. Baina gaur egun kontzeptuari definizio zabalagoa ematen zaio. Hara nola komunitate bat diasporatzat izendatzeko bi baldintza bete behar diren: komunitateko kideek nortasun kolektibo bat partekatu behar dute eta jatorrizko herriarekin loturak atxiki behar dituzte<sup>1</sup>. Euskal diaspora bat badela erran dezakegu hots. Azken urteotan Euskal Herriatik kanpo antolatutako komunitate euskaldunek berek diaspora kontzeptua bereganatu dute, baita Euskal Herriarrek ere.

“Euskal Diaspora” deritzogularik, zertaz ari gara xuxen? Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetatik partitu emigrazio fenomenoaren ondorioz, munduko herri ezberdinetan antolatu diren euskal komunitatez ari gara. Emigrazioak

forma ezberdinak izan ditu historian zehar<sup>2</sup>. Hala ere, denboraldi zehatz bat bereiztu daiteke, zeinetan euskaldunek masiboki emigratu zuten. Hau, 1830 eta 1930 urteen bitartean gertatu fenomeno da, nahiz eta 1960. hamarkada arte masiboki leku jakin batzuetara joaten segitu zuten euskaldunek. Gehienbat Argentina, Uruguay eta Estatu Batuetara joan ziren.

Gaur egun munduan zehar aurkitzen diren euskal komunitateak fenomeno honen ondorioak dira gehienbat. Goiz ala berant, diasporako euskaldunek elkarte formalak sortu dituzte. Eusko Jaurlaritzaren erregistroaren arabera, 200 bat elkarte daude 24 herrialdetan barreiaturik<sup>3</sup>. Emigrazio olatuaren gehiengo hara joan zen bezala, Argentina (90 elkarte pasa) eta Amerikako Estatu Batuek (40 elkarte pasa) dute elkarte kopuru handiena. Beti ere, euskaldunek emigratzen segitzen dute, nahiz eta proportzioak ttipiago izan. Europako, Ameriketako eta Asiako hiriburuetara doaz batibat. Euskal komunitate berriak ari dira eraikitzen, tradizionalki euskaldun askorik ez zen lekuetan, hara nola Italian edo Alemanian, elkarte berri batzuk sortuz.

Euskal diaspora anitza da. Aipatu dugun bezala, kolektibitate batzuk berri-berriak dira, kide gehienak Euskal Herrian sortuak izanez (Berlin adibidez). Beste komunitate batzuetako kideak aldiz inmigrazio denboratik urrunago dira, 4. 5. 6. belaunaldiez osatua (Argentinan bezala). Inmigrazio esperientzia ezberdinak ezagutu dituzte euskaldunek herri berrian. Herri batetik bestera hizkuntza ezberdinak mintzo dituzte. Ondorioz, Euskal Herriatik kanpo historian zehar osatu diren euskal komunitateen aipatzeko “euskal diaspora” singularrean baino, “euskal diasporak” pluralean erabili behar genuke.

Horiek erranik, diaspora osatzen duten Ameriketako euskal komunitateen bilakaerari interesatuz –izan Estatu Batuetan, Mexikon edo Argentinan– joera amankomun bat agertzen da. Goiz ala berant, herri ezberdinetan, nortasun euskal-amerikano originalak sortu dira eta aitzina ematen den euskal nortasunak Euskal Herria bere osotasunean hartzen du oinarritzat.

Lan honen helburua hirukoitza da. Hasteko, euskal nortasun inklusibo hori nola gauzatzen den ikusiko dugu. Bigarrenik, egoera honen faktoreak aipatuko ditugu, komunikabideek rol garrantzitsua jokatzen dutela ohartuz. Azkenik, zazpi lurraldeetako biztanleen artean kidesan partekatuen

lortzeko helburua gogoan, zer heinetan diaspora eredugarri izan litekeen ikusiko dugu.

## 2. Euskal nortasun inklusiboa

Historian zehar euskal nortasunaren erakusleak aldatu diren bezala eta anitzak diren bezala, diasporan ere, euskal nortasunak bide propioa segitu du. Nortasuna ber-eraiki da, ber-interpretatu da. Honek, iragana eta oraina nahasten ditu, Euskal Herriko eta bizileku berriko esperientziak nahasten ditu. Hots, progresiboki, han hor, euskal nortasun originalak eraiki dira.

### 2.1. Zazpiak Bat: diasporaren leloa

Gaur egun, diasporako euskaldunen artean aitzina ematen den euskal nortasunak Euskal Herria bere osotasunean hartzen du oinarritzat.

Hori ez da beti hala izan. Usaian, inmigratzean, inmigranteek nortasun bikoitza zeramaten haiekin: Euskalduna eta Espainola edo Euskalduna eta Frantsesa. XIX. mendean Hego Ameriketara sortu ziren lehen elkarte formalen izenek bakarrik hori adierazten digute. Buenos Aires-en adibidea har dezagun. 1877an Sociedad Vasco-Española Laurak Bat sortu zen, urte zombait berantago, 1895ean, Centro Vasco-Francés eta Centro Navarro antolatuta zirelarik. Euskaldunek, kasuan kasu, antolatzen zituzten festetan, frantses edo espainol bandera ikusten zen.

Pixkanaka-pixkanaka, gauzak aldatuz joan dira. Euskal komunitate diasporiko guzietan gertatu den joera dugu hau:

“En todos los países americanos que recibieron inmigrantes vascos en los años de la inmigración masiva, se ha acabado por constituir unas particulares identidades vasco-americanas en las que integraron inmigrantes procedentes de todos los territorios vascos, tanto españoles como franceses”<sup>4</sup>.

Elkarte asko dira “Zazpiak Bat” edo “Denak Bat” izena dutena, joera honen erakusle. Estatu Batuetako euskal elkarteak batzen dituen the North American Basque Organizations, Inc federazioak adibidez, argiki erraiten du Estatu Batuetako euskaldunak sinpleki euskaldunak direla, Euskal Herriko lurraldeetako ezberdintasunak bazter utzirik. Estatu Batuetan

beti, datu adierazgarri batek ideia honi bere importantzia ematen dio. 1980az geroztik, Estatu Batuetako Erroldan galdezkatuak beren jatorria ezar dezakete. Jendeen eskura dauden kategoria guzien artean, euskal jatorria agertzen da, hiru modu ezberdinetan: “euskaldun-frantsesa”, “euskaldun-espainola” eta “euskalduna besterik gabe”. 1980tik gaur egun arte, “euskalduna besterik gabe” kategoria hautatu dutenen proportzioa gora joan da (1950ean erantzunen % 50a bazen, erantzunen % 80a da gaur egun)<sup>5</sup>.

Oroitarazi behar da Diaspora ez dela politizatua. Euskaldun sentitzen dira, erreferentzia Euskal Herria bere osotasunean dute, baina honek aldarrikapen politikorik hartu gabe.

## 2.2. Nortasun bikoitza, hirukoitza...

Euskaldunek antolatzen dituzten ekimenetan espainol eta frantses nortasunen aipamenak ez dira ageri gehiago. Aurrera ematen diren bi nortasunak gaur egun euskalduna eta errezebitu zituzten herriarena dira: euskaldun-argentinarra, euskaldun-estatu batuarra, euskaldun-uruguayarra eta abar. Bi banderak ikus daitezke beraz diasporako euskaldunek antolatu hitzordu ezberdinetan, baita eraiki dituzten Euskal Etxeen aurrealdean ere. Nortasun bikoitz horren adierazpenean diasporako euskaldunek ez diote kontraesanik ikusten. Batak ez du bestea kentzen. Biak izadi ezberdinekoak direla erran daiteke: bata nortasun etnikoa da, euskalduna; bestea aldiz patriotikoa edo zibikoa.

Horrez gain, nortasun hori hirukoitza edo gehiago izan daiteke, ezkontza mixtoen kasuan. Inmigratio belaunalditik urrunago eta ezkontza mixtoen proportzioa handiago. Euskaldun jatorriko gazte batek, beste kultura batzuetan ere izan detzazke jatorriak: mexikarra, alemaniarra... Egoera horren aitzinean, diasporako euskal komunitate ezberdinek, bere kideen ez galtzeko eta ez desagertzeko, euskaltasunaren definizio inklusiboa aurrera ematen dute, hau baita filiazioa. Euskal jatorria duen edonork, nahiz eta jatorri urruna izan batzuetan (izan 4., 5. edo 6. belaunaldikoak), euskal elkarteetan parte har dezake.

## 2.3. Nortasun transnazionala eta diasporikoa

Nortasun transnazionala zer da? Jatorriko lurraldearen eta lurralde berriaren elementuak nahasten dituen nortasuna da. Diasporako euskaldunak Euskal Herriarekiko emozionalki

lotuak daude, baita fisikoki bizi diren herriari. Lotura hori, geroz eta gehiago, diasporako beste lurraldeekiko ere daukate.

Sentimentu diasporiko bati buruz doazela erran dezakegu. Mentalitate diasporikoa eraikitzen ari den fenomeno da. Diaspora 8. euskal lurraldea osatzen duelako konzientzia hartzen ari da geroz eta gehiago. Nortasun diasporiko hori ez da Euskal Herriaren kalkoa. Eta ez da homogenoa ere. Anitza da: ezberdintasunak badira kolektibitateen artean. Baina, bat egiten dutelako sentimentua hor da.

## 3. Kidesun partekatuen eragin eta eragiten duten faktoreak

### 3.1. Globalizazioaren ondorioz sortu trenak

Komunikabideen garapenak komunikazioa errextu du, Euskal Herriarekin, baita diasporako kolektibitateen artean ere. Elgar ezagutzearan mugak erori dira. Garraioen garapenarekin distantziak ttipitu dira eta mugitzea errexago bilakatu da (autoz, hegazkinez...).

Cyber espazioan ere nortasuna eraikitzen da. Espazio eraikia eta partekatua da. Leku fisikoa ez da gehiago opzio bakarra norberaren nortasunaren adierazteko, komunitatearen sortzeko<sup>6</sup>. Webguneak, blogak, facebook... Hainbat tresna daude gaur egun diasporaren eskura, elgarren artean trukatzeko, haien nortasunaren erakusteko... “Bat” sentimentu horretan laguntzen du. Nortasuna lokala eta globala da aldi berean: batetik bestera pasatzen dira, inongo arazorik gabe.

### 3.2. Bestearen ezagutza

1940. hamarkadatik goiti Hego Ameriketara eta 1960. hamarkadatik goiti Ipar Ameriketara, diasporako euskal komunitateak elkarte formalen inguruan antolatzen hasi ziren, eta bide berean euskal jaiak instituzionalizatu ziren (komunitate bakoitzak bere euskal jaiak du). Paraleloki, komunikabideen demokratizazioa dela medio, zonalde ezberdinetako euskaldunak elgar ezagutzen eta elgarrekin lan egiten hasi ziren. Poliki poliki, sare informala sortu zuten, beranduago federazioen sorrerarekin formalizatuko dena.

1955ean, Argentinako Mar de Platan 26 euskal elkarrekin ordezkariak bildu ziren eta Federación de Entidades Vasco-Argentinas (FEVA) sortu zuten. Gaur egun 90 elkarte

baino gehiagok osatzen dute federazioa. Estatu Batuetako euskaldunek berdin egin zuten 1973an, The North American Basque Organizations, Inc (NABO), sortuz 8 elkarten artean, gaur egun 40 elkarte pasa direlarik.

Federazioek euskal elkarte ezberdinen arteko komunikazioa hobetzeaz gain, beste maila bateko aktibitateen plantan jartzea ahalbidetzen dute ere, komunitate ezberdinetara doazen musika taldeen Euskal Herritik etorraraztea edo euskara garatzeko programak antolatzea besteak beste. Hara nola euskara modu trinkoan ikasteko ikastaroak antolatzen dituzten Argentinan. 1970. hamarkadaz geroz, Estatu Batuetan, NABOk urtero 10-15 urte arteko euskal-amerikarrei zabaldu Uda Lekua proposatzen du. Bi astez, Estatu Batuetako zoko ezberdinetatik jin 100 bat gazte biltzen ditu. Euskal dantza, musika, pilota eta euskara irakasten zaie, baita bestelako joko eta ateraldi ezberdinak egiten dituzte. Iniziatiba honek gazteak haien euskal nortasunaz harro izaten laguntzen ditu, eta euskal komunitatearen sorkuntzan aktiboki parte hartzen du ere, beste euskal-amerikarrekin lagun bilakatzen baitira.

Euskal inmigranteek, herri berrian sartzean, “inmigratio kadena” fenomeno segitu zuten, familia edo/eta ezagunak zituzten lekuetara joanez. Horren ondorioz, Douglass eta Bilbao-k erakutsi bezala, tradizionalki, euskaldunen instalazioak Estatu Batuetan Euskal Herriko ezberdintasun geografikoak erreproduzitu ditu. Iparraldetar eta Nafartarrak Kalifornian, New Mexicon, Arizonan, Wyomingen, Coloradon eta Montanan ikusten badira gehienbat, Bizkaitarrak aldiz Oregon ekialdean, Idaho hegoaldean eta New Yorken instalatu ziren batibat. Hiru taldeak atzemaiten dira Nevada eta Utah estatuetan<sup>7</sup>. Progresiboki, komunikabideen garapenak lagundurik, zonalde ezberdinetako euskaldunek elgar ezagutzen dute eta euskal nortasun orokor baten sentimentua partekatzen dute. Diasporako dantza taldeen errepertorioi so bat eginez, historian zehar bilakaera bat gertatu dela erran daiteke: hasiera batean ez bezala, dantza taldeek, diaspora guzian, probintzia guzietako dantzak ikasten eta ematen dituzte gaur egun.

Herrialde mailako trukaketez gain (Argentina, Estatu Batuak...), geroz eta gehiago, diasporako euskaldunek mundu mailako hitzorduak dituzte ere. Herri jakin bateko euskaldunek beste herrietako euskaldunak ezagutzeko eta harremanak sortzeko parada asko daude gaur egun: nazioarteko mus eta pilota

txapelketak, bidaien antolaketa... Lau urtetarik behin Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Euskal Gizataldeen Mundu Bazarrean herri ezberdinetako ordezkariak biltzen dira, eta parada paregabea da elgar ezagutzeko, diasporan euskal kulturaren erronkak partekatzeko eta haien artean zubiak eraikitzeko.

Eusko Jaurlaritzak kanpora begira Euskal Herriaren promozioa egiteko politika ausarta eramaten du. Horren kari, diasporako euskal komunitateekin harreman estuak ditu. Euskal Gobernuak diasporako euskal elkarteak haien programak plantan ezartzen diruz laguntzeko dispositiboak proposatzen ditu (2017an 73 elkarte lagundu zituen). Horrez gain, euskara sustatzeko Euskara Munduan programa berezia dauka ere.

#### 4. Ondorioak

Erran genezake diaspora eredu izan litekela euskal lurraldeetako biztanleen artean kidesan partekatua izateko.

Diaspora anitza da. Hainbestearino non, sarreratik zehaztu bezala, bardin aproposago izango litzatekeen “euskal diasporak” pluralean erabiltzea ere. Inmigratio esperientzia ezberdinak ezagutu dituzte euskaldunek eta haien ondorengoez kasuan kasu, egoera politiko eta ekonomiko ezberdinetan bizi dira... Diasporako euskal komunitate bakoitza ere anitza da, jatorri ezberdineko jendea, belaunaldi ezberdineko jendea, ideia politiko ezberdineko jendea biltzen baitu, besteak beste.

Ezberdintasun guzien gainetik, diasporako euskaldunek kohesioa bilatzen dute, balore partekatuan oinarritzen dira, eta ez zatitzen duen horretan. Helburu bakarra gogoan, euskal kulturaren bizirik mantentzea, denek elgarrekin eskuz-esku lan egiteko nahikeria bada.

Haien nortasuna bizitzeko eta beste komunitateekin trukatzeko bilgune espazioak eraiki dituzte (euskal etxeak, federazioak, gazteen trukaketa garatzeko espazioak, mundu batzarrak...) eta horiek bestearen ezagutzan eta komunitatearen kohesioan lagundu dute azkarki.

Diasporako euskaldunek lurraldetasun kontzeptuaren beste hurbilpen bat dute. Nortasuna ez zaio lurralde bakar bati errotua. Hemengoa eta hangoa, lokala eta globala, leku askotakoa, belaunaldi ezberdinetakoa da aldi berean.

---

## Bibliografia

---

- Álvarez Gila, Oscar. "De «América y los vascos» a la «octava provincia»: 20 años de historiografía sobre la emigración y presencia vasca en las Américas (siglos XIX-XX)". *Vasconia* 34, 2005: 275-300.
- Camus Etchecopar, Argitxu. "A Historical Comparative Study of Basque Institutions in the United States". PhD dissertation, University of Nevada, Reno, 2008.
- Camus Etchecopar, Argitxu. *The North American Basque Organizations, Inc.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007.
- Cohen, Robin. *Global Diasporas: An Introduction*. Cornwall: UCL Press, 1997.
- Douglass, William et Bilbao, Jon. *Amerikanuak: Basques in the New World*. Reno: University of Nevada Press, 1975.
- Mignaburu, Magdalena. *Historia de la federación de Entidades Vasco Argentinas*. Buenos Aires: FEVA, 2006.
- Oiarzabal, Pedro. *The Basque Diaspora Webspaces*. Reno: Center for Basque Studies Press, 2013.

---

## Oharrak

---

1. Cohen, Robin. *Global Diasporas: An Introduction*. Cornwall: UCL Press, 1997.
2. Amerikaren deskubritzearen ondorioz (1492), euskaldun askok Koro Espainolaren abentura transatlantikoetan parte hartu zuten, izan esploratzaile, itsasgizon, merkataritza edo misionario.
3. Eusko Jaurlaritzak eraiki munduko euskal gizataldeen erregistroaren arabera ([www.euskaletxeak.net](http://www.euskaletxeak.net)).
4. Álvarez Gila, Óscar. "De «América y los vascos» a la «octava provincia»: 20 años de historiografía sobre la emigración y presencia vasca en las Américas (siglos XIX-XX)". *Vasconia* 34, 2005, orr. 275-300.
5. Douglass, William. « Calculating Ethnicity Through the US Census », *Boga* 4, Iss I, Urtia 2016.
6. Oiarzabal, Pedro. *The Basque Diaspora Webspaces*. Reno: Center for Basque Studies UNR Press, 2013.
7. Douglass, William A. eta Jon Bilbao. *Amerikanuak: Basques in the New World*. Reno: University of Nevada Press, 1975.